

BOUNTY ondatuta.

“SANDY”k ondatu eban Bounty itsasontzi apartekoa.



HMS Bounty munduko itxasontzi ezagunenetariko dogu.

1787an ospetsu egin zan Tahiti itxaso aldetik ebillera, ingalendar ontzian sortutako matxinagaitik.

Gertaera ori liburuetan agertu zan, esate baterako Julio Vernek idatzitako elebarri baten, eta baita zinema arloan be. Mario Brando ta Richar Harrik antzestuarako ontziaren eduki bardin bardina egin zan, ontzi jatorrizkoa guztiz erreta gelditu zalako matxinadaren aztarnarik ez nabaritzeagaitik.

Eduki bardiñaz agertu ostean Bounty ontzia turisten gozamerko biurtu zan, jabe batzuen eskuetan erabili ta gero. HMS Bounty Organizazion LIC ek bereganatu eban tourrak edo bisitaldiak antolatuteko asmotan, bide batez ontziaren istoria jakinerazi edota bere egiturea erakutsiaz.

Alango batean “Sandy” ekaitzak Bounty itxasontziaren gora bera guztiak amaitu ebazan. Iru palu-mastilekoa ta 55 metro luzerakoa zan itxasontzia, ondatu egin da, iñoan egunerokoak, Ipar Karolinako ondartzia inguruan. Gaur goizean agertu da



illotzik, Klaudine Christyan, 42 urtekoaren gorpua, gañerako 14 itxasgizon berreskuratuakin batera.

Gudaloste ontzia airetik aztertzen dabil aurkitu gurean Ipar-Karolinako Cabo Halterastik 145 kilometrora 63 urteko Robin Walbridge ontziburu desagertua.

Itxasontzi au eraiki zanezkerotik sarritan ikus leikean zinemaldietan. Esate baterako, azkenengoz, "Piratas del Caribe" pelikulean. Asiorean zama-ontzi lez erabilten zan, baña 1787an Ingalendar Armada jabetu zan "fruta de pan" (ezklaboentzako janari merkea) Thaitik Karibera eroateko.

Eta ementxe asten itxasontzi orren istori bitxia (ipuia)

Bounty itxasontzia, Cook kapitanaren ikasle Willian Bligen burupean, 1787 gabonetarako abiatu zan lenengo eginbearra betetzera. Atera zan bide ta denpora neurtuekaz. Baña egualdiaren erruz, norabidea aldatu bearra izan eban, ibillaldia sano atzeratuz.

Tahitira, 1788ko urrian eldu zanean, frutuak eroan ezin ebezanez, luzetu egin eban bertako egotaldia. Bien bitartean, 44 itxasgizon ziranak, erriko emakumeakin artu emonetan asi ziran. Ainbesteraño ze eurentariko bat Fetcher Cristyan, itxasontziko buruordea, erritar gazte batekin eskondu zan.

1789an asi bear izan eben egin bearra betetan. Geienak, barriz, gogo txarrez.

Ain zuzen be, illebeta gerotxoago, matxina bat sortu zan itxasgizonen artean Kristian buru zala. Beronen alde 11 gizonek jokatu eben. Geienek, ordea, Bligenen alde. Alan da be gitxienak izan arren, Bounty itxasontzian gelditzea lortu eben Tahitira itzuliaz.

Bitartean Pitkan irlan ostondu ziran kutunakin batera, eta ingalendar ontziren batek arrapatzeko bildurrez, erre ta suntsitu eben ontzia.

MUNETXE 2012-10

